



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/16

Enplegu Foru Diputatuak autoenplegu programaren balantzea aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Foru Diputatuak 2017ko autoenplegu programaren balantzea aurkeztu dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon Batzordearen aurrean, Batzarretako EH Bildu taldeak egindako eskariari erantzunez. Aldundiak 6,3 milioi euroko inbertsinoa egin eban igaz programan, mila eskari baino gehiagori erantzunez, horreen arteko herena iraupen luzeko lanbakoek aurkeztutakoa.

Foru Diputatuak emon dituan datuak kontuan izanda, bere Sailak 1.074 laguntza eskari lagundu ebazan 2017an, 6.335.714 euroko inbertsinoagaz. Programak norgehiagoka erespedeak sartu ebazan lehen aldiz laguntzak emoteko orduan, eta jarduketarako ildo bi aurreikusi ebazan. Enpresa proiektuak martxan jarteko aholkularitzara zuzendutako lehenengoan, aurkeztutako 29 eskarrietatik 28ri emon jaken arreta, 900.000 euroko inbertsinoagaz. 5.000 eta 15.000 euro bitarteko laguntzen bitartez enpresa barrien lehen urteko funtzionamentua bultzatzen dauen bigarren ildoak, barriz, 1.046 proiektu lagundu ebazan diruz, 5,4 milioi euro bideratuz.

Teresa Laespadak azpimarratu dauenez, ekintzaileen erdia baino apur bat gehiago (%50,17) andrazkoak izan ziran, eta adin tarteari jagokonez, %25, 30 urtetik beherakoak izan ziran, eta ia %27, 45 urtetik gorakoak. Proiektuen %33, iraupen luzeko lanbako egoeran (urte bi baino gehiago lan barik) egozan pertsonak aurkeztutakoak izan ziran. Foru arduradunak azpimarratu dauenez, autoenplegurako ekimen barrien %9 ekonomia jasangarriagaz egon zan erlazionauta igaz. Gainera, lan munduan sartzeko gaiztasun bereziak dituen pertsonen autoenplegua bultzatzen dauen programea da, 45 urtetik gorako pertsonena, besteak beste.

Euren esku-hartzeetan, Batzarretako taldeek moeta guztietako eretxiak erakutsi ditue Foru Diputatuak aurkeztu dauen balantzea dala eta. Talde Mistoak eta Talde Popularrak txostena zorrotz aztertzeke asmoa erakutsi dabe, eta Podemosek azpimarratu dau beharrezkoa dala autoenplegua “auto-esplotazino edo autonomo faltso” egoeretara bideratzeko arriskua saihestea. EH Bilduk adierazo dauenez, partidak ez zirala nahikoa esaten eben kexak jaso ditu, eta gabezia hori konpondu beharra azpimarratu dau. Eta Foru Aldundiko gobernua eusten daben taldeak – Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– Enplegu Sailak aurrera eroan dauen lan ildoaren alde agertu dira, eta markautako helburuak bete izana azpimarratu dabe.

ENPLEGU IKASTAROAK ETA GENERO ESTEREOTIPOAK

Lan barik dagozan pertsonentzako prestakuntza ikastaroak antolatzeko orduan genero estereotipoak erabiltea izan da gaur goizean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Batzordean Teresa Laespadak izan dituan beste esku-hartze biren xedea. Lehenengoak Talde Mistoak egindako agerraldi eskari bati erantzun deutso, azaldu daian zer gertatu dan Integrando Fundazioak, Aldundiak babestuta, bulegoak eta lokalak garbitzeko, bakarrik andrazkoentzat antolatu dauen prestakuntza programan; bigarrena, EH Bilduk gai beraren inguruan egin dauen erantzun-eske bati emondako erantzuna izan da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Aldundiko arduradunak bere Sailaren jarduketea defendidu dau, ia prestakuntzarik ez daukien eta ezkutuko ekonomiatik edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentea (DSBE-RGI) jasotetik datozen andrazkoen taldeak lan munduan sartzeko dituan gaiztasun bereziak kontuan izanda. Izan be, Diputatuaren berbetan, egoera horreetan “oso gaitza egiten jake euren eskubideak erreklametea”. Laespadak onetsi dau eztabaidea sortzen dala bardintasuna eta gizarte bazterketaren kontrako burrukea bateragarri egiteko orduan, eta arautegia aldatzeko neurriak iragarri ditu eta enplegurako prestakuntza politikan edozein ikutu sexista baztertzeko gogoeta egingo dala adierazo dau.

Oposizionoko taldeen artean, Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa) genero estereotipoak errepikau egiten dirala salatu dau, eta prestakuntza programa guztiek izaera mistoa izatearen alde agertu da, Eduardo Andrések (Taldea Popularra) egin dauen moduan. Azken horrek adierazo dauenez, “gai horren inguruan irakurri ahal izan genduzan prentsako titularrak oso esanguratsuak izan ziran”. Neskutz Rodríguez Podemos taldeko ordezkariak, ezelango zehapenik edo ohartarazpenik aurreikusita ete daukan galdetu deutso Enplegu Sailari, eta “beharra generoen arabera banatzean sakontzen daben ikastaroak” aztertzearen alde agertu da.

Arantza Urkaregik (EH Bildu) ikastaro horreen jasotzaileak ziran andrazkoen taldeak beharra aurkitzeko gaiztasunak dituala autortu dau, baina “helburua genero bardintasuna be izan behar dala” azpimarratu dau, “eta faktore biak izan behar dirala kontuan Sailak dekretuak idazten dituanean”. Talde horretako bozeroalea adiskidetzailaigo agertu da gai beraren inguruko erantzun-eskea egiteko orduan, talde politikoaren, sindikatuen eta mobimendu feministaren arteko “gogoeta partekatua” aldeko apustua egingez. Teresa Laespadak onartu egin dau konbitea.

Juan Otermin Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, sortu dan gatazkaren parte handia “prentsako titular desegoki batean” oinarritu da. Euzko Abertzaleak taldearen lerroetatik, María Presak esan dau holango salaketek “ibilpide laburra daukiela, politika horreek diskriminazio positiboa eta andrazkoen enplegarritasuna bultzatzen dabelako”.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Batzordearen saioa, Foru Diputatuak EH Bilduk eskatuta egin dauen beste esku-hartze bategaz osatu da, lau enplegu anezka barri martxan jarrearen eta gazteen ekintzaitzaren sustapenerako aurreikusi dan aurrekontuaren igoerearen inguruan. Teresa Laespadak ekimen bi horreen inguruko hainbat xehetasun emon ditu, baina ondorio moduan, “ekintzaitzarako sare proiektua sorkuntzako fasean baino ez dagola, eta aurrera egin ahala, lortzen dituan emaitzen inguruko informazio gehiago emon ahal izango dabela”, esan dau.

NOTA DE PRENSA
16/02/18

La Diputada Foral de Empleo presenta ante las Juntas Generales de Bizkaia el balance del programa de autoempleo

Teresa Laespada, Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, ha presentado esta mañana ante la Comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia el balance del programa de autoempleo en 2017, en contestación a una solicitud formulada por el grupo juntero de EH Bildu. El programa supuso el año pasado una inversión de 6,3 millones de euros por parte



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la Diputación, que atendió a más de un millar de solicitudes, de las que una tercera parte fueron presentadas por personas desempleadas de larga duración.

De acuerdo con los datos facilitados por la Diputada Foral, su Departamento dio respuesta en 2017 un total de 1.074 solicitudes de ayuda, con una inversión de 6.335.714 euros. El programa incorporó por primera vez criterios de concurrencia competitiva a la hora de conceder las ayudas, y contempló dos líneas de actuación. En la primera, dedicada al asesoramiento para la puesta en marcha de proyectos empresariales, se atendieron 28 de las 29 solicitudes presentadas, por un montante de 900.000 euros. La segunda línea, que apoya el primer año de funcionamiento de las nuevas empresas con ayudas que van desde 5.000 a 15.000 euros, subvencionó 1.046 proyectos por importe de 5,4 millones de euros.

Según ha destacado Teresa Laespada, algo más de la mitad de las personas promotoras -50,17%- fueron mujeres y, en cuanto a rango de edad, el 25% eran menores de 30 años, y casi el 27% mayores de 45, con un 33% de proyectos liderados por personas en situación de desempleo de larga duración (más de dos años en paro). La responsable foral también ha recalcado que un 9% de las nuevas iniciativas de autoempleo tuvieron que ver el año pasado con la economía sostenible, así como el hecho de que se trata de un programa que favorece el autoempleo en personas con especiales dificultades de inclusión, como son quienes han superado los 45 años.

En sus turnos de intervenciones, los grupos junteros han mostrado diferentes posicionamientos en relación al balance aportado por la Diputada Foral. Grupo Mixto y Grupo Popular han manifestado su intención de analizar en detalle el informe, mientras que Podemos ha puesto el acento en la necesidad de evitar el riesgo de que el autoempleo derive en situaciones “de auto-explotación o de falsos autónomos”. EH Bildu ha señalado que ha recibido quejas en torno a la insuficiencia de las partidas y abogado por la necesidad de corregir esta carencia. Y los grupos que apoyan al gobierno de la Diputación Foral –Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos- han apoyado la línea de trabajo emprendido por el Departamento de Empleo y el cumplimiento de los objetivos marcados.

CURSOS DE EMPLEO Y ESTEREOTIPOS DE GÉNERO

Los estereotipos de género a la hora de organizar cursos de formación para personas en situación de desempleo han sido objeto de otras dos intervenciones por parte de Teresa Laespada en la Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia celebrada esta mañana. La primera ha respondido a una solicitud de comparecencia por parte del Grupo Mixto para explicar lo sucedido con un programa de formación de la Fundación Integrando para la limpieza de oficinas y locales, subvencionado por la Diputación y dirigido solo a mujeres; y la segunda ha sido una respuesta a una pregunta de EH Bildu en el mismo sentido.

La responsable foral ha defendido la actuación de su Departamento considerando las especiales dificultades de inserción laboral de un colectivo de mujeres sin apenas formación y procedentes de una economía sumergida o de la percepción de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), “desde donde difícilmente pueden reclamar sus derechos”. Laespada ha admitido que existe un debate a la hora de compatibilizar la igualdad y la lucha contra la exclusión social, y ha anunciado medidas para modificar la normativa y reflexionar de cara a evitar cualquier posible sesgo sexista en la política de formación para el empleo.

Por parte de los grupos junteros de la oposición, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha denunciado la reproducción de los estereotipos de género y ha abogado porque los programas de formación



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

tengan un carácter mixto, al igual que Eduardo Andrés (Grupo Popular), que ha señalado que “los titulares de prensa que pudimos leer sobre esta cuestión chirrían”. Neskutz Rodríguez, en representación de Podemos, ha preguntado si el Departamento de Empleo tiene previstas sanciones o amonestaciones, y ha abogado por revisar “aquellos cursos que inciden en la división del trabajo por géneros”.

Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha reconocido las dificultades de empleabilidad del colectivo de mujeres al que se dirigían los cursos, pero insistiendo en que “el objetivo debe ser también la igualdad de género, y ambos factores deben ser tenidos en cuenta a la hora de redactar los decretos por parte del Departamento”. La portavoz de este grupo se ha mostrado más conciliadora en su pregunta oral sobre esta misma problemática, en la que ha apostado por una “reflexión compartida” entre grupos políticos, sindicatos y movimiento feminista, invitación que ha sido recogida por Teresa Laespada-

Juan Otermin, portavoz de Socialistas Vascos, ha aducido que buena parte del debate suscitado se basó “en un desafortunado titular de prensa”, mientras que, desde las filas de Nacionalistas Vascos, María Presa ha aducido que este tipo de acusaciones “tienen poco recorrido, porque estas políticas promueven una discriminación positiva y persiguen la empleabilidad de las mujeres”.

La sesión de la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia se ha completado con otra comparecencia de la Diputada Foral a solicitud de EH Bildu, en torno a la puesta en marcha de cuatro nuevas lanzaderas de empleo y al incremento del presupuesto previsto para la promoción del emprendimiento juvenil. Teresa Laespada ha ofrecido algunos detalles acerca de estas iniciativas, pero ha concluido señalando que “el proyecto de red de emprendimiento está aún en fase embrionaria, y a medida que se vaya desarrollando podremos ir facilitando más información acerca de sus resultados”.